



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2023/09/18LESAKAKO UDALA
Plaza Zahara, 1
31731 Lesaka (Nafarroa)
NIF P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.es
udala@lesaka.es

NIF: P3115200B

SECRETARIA GENERAL

ALKATEAREN EBAZPENA, ADMINISTRARI-OFIZIALA LANPOSTUAK OPOSIZIO LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO EPAIMAHAIA IZENDATZEN DUENA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako Udaleko alkatearen abenduaren 14ko 578/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen administrari-ofizialen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Lesakako Udaleko alkatearen uztailaren 27ko 329/2023 Ebazpenaren bidez Lesakako Udaleko ofizial-administrari lanpostuen (C maila) onartutako izangaien behin behineko zerrenda onartzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesurako lanpostu hutsen deialdia, abenduaren 28ko 20/2021 Foru Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

Deialdiaren 5 oinarrien arabera, Kalifikazio epaimahaia deialdi hau onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da.

Ikusirik deialdiaren 5.7. oinarria, non, epaimahaiak aholkulari espezialistei deitzen ahalko die, bere eskumeneko jarduketetatik edozeinetan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.) Lesakako Udaleko administrari-ofizial lanpostuak (C maila) egonkortzeko eta finkatzeko postuetarako epaimahaiko kide honako hauek izendatzea:

-Lehendakaria: Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.
Ordezkoa: Izaskun Rodriguez Marichalar, Lesakako Udaleko zinegotzia.

-Bokala: Iñigo Urdangarin Zurutuza, Lesakako Udaleko kontuhartzailea.
Ordezkoa: M.Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontuhartzailea

-Bokala: Maria Begoña Alzugaray Lecuona, Lesakako Udaleko administrari ofiziala.
Ordezkoa: M.Gema Mitxelena Agesta, Berako Udaleko administrari ofiziala.

-Bokala: Pedro Apezteguia Alzugaray, Lesakako Udaleko langileen ordezkaria.
Ordezkoa; Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea, Lesakako Udaleko langileen ordezkaria.



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI
2023/09/18

LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA ANHD XRUJ 44X2 HEPL

Resolución Nº 412 de 18/09/2023 "ESTABILIZAZIO PROZESUA- ADMINISTRARI OFIZIAL LANPOSTUEN EPAIMAHAIA IZENDATZEA" - SEGRA 6602Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.es/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2023/09/18



LESAKAKO UDALA

Plaza Zahara, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
NIF P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

NIF: P3115200B

SECRETARIA GENERAL

-Idazkaria: M.Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.
Ordezkoa: Miguel Jose Belarra Tellechea, Berako Udaleko Idazkaria.

- 2.) Epamahaiak aholkulari espezialistei izendatzeko aukera ematea.
- 3.) Ebazpen hau epamahaikideei jakinaraztea eta Udaleko web orrian argitaratzea.

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:

- A. Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. art.).**
- B. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa:**
 - Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.
 - Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa).
- C. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailearen 2koa).**



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRAYOZ ARIZTEGUI
2023/09/18



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA ANHD XRUJ 44X2 HEPL

Resolución Nº 412 de 18/09/2023 "ESTABILIZAZIO PROZESUA- ADMINISTRARI OFIZIAL LANPOSTUEN EPAIMAHIA IZENDATZEA " - SEGRA 6602

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 2 orrialdea